

Erakunde publikoen jardueran eta kudeaketan  
euskarak duen garapen-mailaren BIKAIN  
ebaluazioa

# EBALUAZIO-TXOSTENA

## 2025

**EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA**

Ebaluatuko den erakundearen izena:

**VILLABONAKO UDALA**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# **EUSKARAREN ERABILERA ETA KUDEAKETAREN EBALUAZIOA**

## **AURKIBIDEA**

### **1. Atarikoa**

### **2. Erakundearen ikuspegi orokorra**

### **3. Erakundearen ikuspegi xehea: ebaluazioa ardazka**

1. Ardatzaren ebaluazioa: Kudeaketa
2. Ardatzaren ebaluazioa: Erabilera

### **4. Erakundeak lortutako garapen-maila**

## 1. Atarikoa

<b>Ebaluatutako erakundea:</b>	Villabonako Udala
<b>Txostenaren helburua:</b>	Erakundearen egoeraren berri ematea, euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketari dagokienez. Horrekin batera, erakundeari aurrera egiten lagunduko dioten proposamenak eskaintzea, talde ebaluatzaile kualifikatu baten eskutik. Ebaluazio-txostenean puntuazio tartea ere ematen da, erakunde horrek duen garapen-maila adierazten duena, talde ebaluatzailearen ikuspuntutik betiere. Erakundeak eskura dezakeen ziurtagiria, lortutako puntuazioaren araberakoa da.
<b>Txostenaren edukia:</b>	<p>Txostenak hiru atal ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Erakundearen ikuspegi orokorra: talde ebaluatzailearen iritziz erakundeak dituen indargune eta zer hobetu aipagarrienak biltzen dira.</li><li>- Erakundeak lortutako puntuazioa eta garapen-maila: erakundeak euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketari dagokienez, lortu duen mailaren berri ematen da.</li><li>- Erakundearen ikuspegi xehea: KEMEN osatzen duten 13 arloak oinarri hartuta, horiek banan-banan zenbateraino garatu diren jasotzen da.</li></ul>
<b>Ebaluazioaren datak:</b>	Ebaluazio-eguna: 2025-11-19

### TALDE EBALUATZAILEA

Iñaki Ugalde Alustiza

Elias Zumalde Barrena (ebaluazio osagarria)

## **2. Ikuspegi orokorra**

Lehenik eta behin, aipatu beharrekoa da prozesu guztian ebaluatzaileoi egin zaigun harrera egokia. Bisitaldian erakundeko sail ezberdinetako pertsonekin hitz egiteko aukera izan dugu, eta informazioa eman eta azalpenak erraz eman dira. Jasotako informazio horrekin guztiarekin, talde ebaluatzaileak txosten hau egin du, Villabonako Udalari laguntzeko asmoz.

Talde ebaluatzaileak nabarmendu egin nahi du Villabonako Udalak euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko nahiz kudeatzeko egin duen eta egiten ari den lana. Euskararen erabilera normalizatzeko egindako bideak bere fruituak eman ditu: bai herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko bai euskararen erabilera lan-hizkuntza gisa areagotzeko.

Villabonako Udalak **GOI** mailako garapena du batez beste.

### **PUNTUAZIOA ETA GARAPEN-MAILA**

Orrialde honetan erakunde honek 2025eko ebaluazioan lortu duen puntuazioaren berri ematen da. Puntuazioa berrogeita hamarreko tartetan emana dago:

**ERAKUNDEAK LORTUTAKO PUNTUAZIO-TARTEA, GUZTIRA:  
850-900**

## **AZALPENA ARDAZKA**

Ezkerreko zutabeen ardatz bakoitzean lortutako garapen-maila ageri da, ehunekotan adierazita. Erdiko zutabeen, berriz, ardatz hori osatzen duten epigrafe nagusiak daude, eta ondoan, horietan lortutako garapen-maila, ehunekotan.

%	<b>1. ARDATZA: KUDEAKETA</b>	
<b>70-100</b>	1.0.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	
	1.0.2. LIDERGOA	
	1.0.3 LANGILEAK	
	1.0.4 HIZKUNTZA-GAITASUNA	
	1.0.5 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	
	1.0.6 HIZKUNTZA-KLAUSULAK	
<b>2. ARDATZA: ERABILERA</b>		%
<b>ZERBITZU-HIZKUNTZA</b>		
<b>70-100</b>	2.1.1. IRUDIA	70-100
	2.1.2. HERRITARREKIKO HARREMANAK	70-100
<b>LAN-HIZKUNTZA</b>		
<b>70-100</b>	2.2.1. BARNE-HARREMANAK	70-100
	2.2.2. KANPO-HARREMANAK	70-100
	2.2.3. PRESTAKUNTZA	40-69
	2.2.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK	40-69
	2.2.5 SORTZE-HIZKUNTZA	70-100

Laburbilduz, eta ebaluazio-prozesu osoan zehar eskuratutako informazioa oinarri hartuta, talde ebaluatzaile honen iritziz hauek dira Villabonako Udalak dituen 3 indargunerik garrantzitsuenak:

- Villabonako Udalak euskararen normalizazioan aurrera egiteko eta erreferente izateko erabaki irmoa hartuta dauka eta alde horretatik euskara hutsean funtzionatzeko urrats garrantzitsuak eman ditu azken urteotan. Euskara Ados! Mahaia eratuta dauka Udalak eta udaleko ordezkariak (zinegotzi eta euskara teknikariak) eta herrigintzako eragileek parte hartzen dute herrirako plana zehazterakoan. Horrez gain, Udaleko koordinazio mahaian, arduradun politikoak eta idazkari eta zerbitzu arduradunak elkartzen diren bilgunean, euskara teknikaria ere badago. Mahai horretan sail guztietako gai ezberdinak jorratzen dira eta euskara zeharlerrotasunez lantzen dute. Herriko politika publiko eta proiektu estrategikoetan, hizkuntza estrategiak txertatuta daude.
- Villabonako Udalak gaitasuna dauka euskara hutsean funtzionatzeko, lanpostu guztiek daukate hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data zehaztuta eta momentu honetan batek izan ezik, beste guztiek betetzen dute (bakar horrek euskaraz lan egiteko adineko hizkuntza gaitasuna badauka). Langileek oso barneratuta daukate euskaraz lan egin eta zerbitzua eman behar dutela eta horrela adierazten dute egindako elkarriketetan. Gaitasuna bakarrik ez, borondatea ere badu eta horrela ikusten da, bertako langileek espazio euskaldun batean lan egiten dute eta euskaraz egiten dute egunerokotasunean beraien artean. Euskaraz sortzen dute, esate baterako, hirigintzako nahiz gizarte zerbitzuetako txostenak euskaraz sortzen dira, gaztelaniara itzultzeko erabiltzen da itzultzaile neuronala eta langileek hori barneratuta daukate. Udaleko batzordea eta plenoak euskaraz egiten dira. Herriko errealitatea askotarikoa da, herritar batzuk ez dakite euskaraz eta kasu horietan ere, lehen hitza euskaraz egiten zaie. Tolosaldeko mankomunitateak eskaintzen duen harrera zerbitzuan herrian kokatu da eta bertaratzen direnei, euskararen berri eman eta ikasteko aukera luzatzen zaie.
- Udal ordezkariak aktiboki parte hartzen dute euskararen plan estrategiko eta kudeaketa planaren diseinuan garapenean eta jarraipenean. Legealdi honetan bertako ordezkari politiko guztiek dakite euskara eta bat egiten dute euskararen aldeko ekimenak bultzatzen eta eredugarri dira jarritako hizkuntza irizpideekiko. Jarrera horrek bere isla dauka udalaren eguneroko funtzionamenduan eta herritarrekin dituzten harremanetan. Udalak beste administrazio nahiz erakunde pribatu bateko dokumentazioa gaztelaniaz jasotzen badute euskaraz bidaltzeko eskatzen du Udalak.

Bestetik, hauek izan daitezke Villabonako Udalari aurrera egiten gehien lagun diezaioketen palankak, erakundearen beraren lehentasunak, errendimendua (eragin biderkatzailea) eta egingarritasuna aintzat hartuta:

- Villabonako Udalak esku artean duen erronkarik aipagarriena sistematizazioa da eta horretarako aukera badute astero egiten den koordinazio bileran esate baterako. Horrela, kudeaketa orokorrean guztiz integratuko litzateke euskararen normalizazioak berekin duen guztia. Udalean hizkuntza klausulak ezarrita egon arren, ez zaie jarraipen zehatzik egiten kontratu txikietako klausulei ezta euskara planarekin lotutako adierazleei ere. Horien jarraipena egiten da baina ez sistematizatuta dagoelako baizik eta pertsona jakin batzuen inertziak bultzatuta eta komeni da udalak bide horretan sakontzea. Langile berriak sartu ahala, hizkuntza irizpideak zeintzuk diren eta euskararen inguruan hartutako erabakiak azaltzea komeni da, pertsona horiek izan ditzaketen beldurrak gainditzen laguntzeko.
- Villabonako Udalak udalak ez du formazio planik eta beharren arabera formazio saioak egiten dira eta kasu batzuetan ez da proaktiboki jokatzeko hizkuntzarekiko. Komenigarria ikusten da formazio horiek euskaraz jasotzeko irizpideak eta protokoloak zehaztea.

- Villabonako Udalean ordenagailu guztietan ez dira jarri sistema eragile eta office-ko paketeetan euskarazko bertsioak, ordenagailu berriak jarri ahala euskarazko bertsioak jartzeko erabakia hartu da. Komenigarria ikusten da defektuz euskarazko bertsioak jartzea, langile askoren ohitura gaztelaniazko bertsioa erabiltzea delako eta kasuren batean, ez aldatzeko jarrera egon daitekeelako.

Amaitzeko, ebaluatzaileok gure esker ona adierazi nahi diegu ebaluazioan parte hartu duten pertsona guztiei beren prestasunagatik eta erakundea bertatik bertara ezagutzeko eman diguten aukeragatik. Espero dugu hemen jasotako guztiak Villabonako Udalarentzat baliagarriak izatea, euskararen presentzia, kudeaketa eta erabilera sendotzeko.

### 3. Erakundearen ikuspegi xehea: ebaluazioa ardatzka

## 1. Ardatza: KUDEAKETA

GARAPEN-MAILA						
Atributuak	HEDADURA			SENDOTASUNA		
Arloak	0-39	40-69	70-100	0-39	40-69	70-100
<b>Euskararen kudeaketa orokorra</b>			X			X
<b>Lidergoa</b>			X			
<b>Langileak</b>			X			
<b>Hizkuntza-gaitasuna</b>			X			
<b>Estrategiaren komunikazioa</b>			X			
<b>Hizkuntza-klausulak</b>		X				

#### 1.0.1 arloa. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

##### ARLOAREN INDARGUNE OROKORRAK:

- Villabonako Udalak estrategia argia du euskarari dagokionez. Euskararen Plan estrategikoa eta kudeaketa planak udalaren kudeaketa orokorraren barruan daude.
- Villabonako Udalak erabilera plana eta hizkuntza irizpideak plangintzaldi hasieran onartzen ditu eta Jarraipen Batzordea gutxienez urtean hirutan elkartzen da ebaluazioa egiteko. Batzorde horretan ordezkari politikoak, euskara teknikariak eta UEMAKo ordezkariak parte hartzen dute eta behar den kasuetan sailtako ordezkariak ere egoten dira. Jarraipen Batzordearen helburua ezarritako helburu eta irizpideen betetze maila aztertzea eta behar den kasuetan neurri zuzentzaileak ezartzea da.
- Villabonako Udalak euskara zeharkakotasunez lantzen du. Bere politika publiko guztietan txertatuta ditu hizkuntza estrategiak eta hizkuntza kudeaketa aurreratua du arlo guztietan. Horrez gain, udalak defektuz euskaraz funtzionatzen du.

##### ARLOAREN ZER HOBETU OROKORRAK:

- Hizkuntza irizpideen sistematizazio mailan hobetzea eta jarraipena modu koordinatuan egitea dauden bitartekoan bitartez. Horren atzetik sistematizazioa dago eta nahiz eta gaur egun egiten den, pauso sendoagoak emateko aukera izango luke Villabonako Udalak eta horretara animatu nahiko genuke.

#### 1.0.2 arloa. LIDERGOA

##### ARLOAREN INDARGUNE OROKORRAK:

- Udal ordezkari eta arduradunek (alkateak eta euskara zinegotziak) aktiboki parte hartzen dute euskararen plan estrategiko eta kudeaketa planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean. Udal ordezkariak helburu estrategikoak zehazterakoan eta balorazioak egiterakoan ekarpenak egiten dituzte. Legealdi bakoitzaren hasieran udal ordezkari guztiei herriko egoera soziolinguistikoaren eta erabilera planean jarritako helburu eta irizpideen berri ematen zaie.

- Udal ordezkari politikoek jarrera aktiboa dute euskararen erabilera sustatzeko eta horrek bere eragina du udal barruko jardunean eta herritarrekiko harremanetan. Hautetsien aldetik, eredugarritasuna ikusten da udal barruan eta herritarrei begira

### 1.0.3 arloa. LANGILEAK

#### ARLOAREN INDARGUNE OROKORRAK:

- Langileek ondo ikusten dute euskarak Villabonako Udalean izan duen bilakaera eta barneratuta daukate egunerokoan euskara erabili egin behar dutela, naturaltasunez egiten da. Euskara dakiten herritarrak udalera joaten direnean euskaraz zuzentzen dira eta aukera hori ikusi egiten dute herritarrek.
- Langileek beraien eguneroko lan jardunean plan estrategikoan eta erabilera planean ezarritako zereginak betetzen dituzte.
- Langileek, oro har, euskara jardun administratiboetan eta udaleko dinamikan normaltasunez txertatu dela ikusten dute

#### ARLOAREN ZER HOBETU OROKORRAK:

- Hizkuntza irizpideak ezagutu, bereganatu eta betetzen dituzten arren, komenigarria ikusten da maiztasun jakin batekin langile guztiei begirako saio orokor bat egitea, gogorarazteko, motibatzeke eta bidean aurrera egiten laguntzeko eta zer esanik ez lanean hasten diren langile berriak daudenean.
- Udal mailan bestelako sustapen lanak martxan jartzea komenigarria ikusten da.

### 1.0.4 arloa. HIZKUNTZA-GAITASUNA

#### ARLOAREN INDARGUNE OROKORRAK:

- Villabonako Udaleko langile eta ordezkariak euskaraz lan egiteko eta euren funtzioak eta eginkizun profesionalak euskaraz betetzeko gaitasuna dute, guztiek betetzen dute dagokien hizkuntza eskakizuna. Alderdi politikoek ordezkari euskaldunak dituzte legealdi honetan.
- Udalean oso barneratuta dago euskaraz lan egiten duen udala dela eta langileek horren aldeko ekintzak martxan jartzen dituzte. Udalak inertzia ezarria du, errota du eta euskarazko kultura bat ezarrita dago. Langile berriak sartu ahala kultura horretan sartzen dira eta euskara da beraien lanerako tresna harreman formalean eta informalean.

#### ARLOAREN ZER HOBETU OROKORRAK:

- Gai jakin batzuetan, txosten juridikoak egin behar direnean esaterako gaztelaniazko testuetara jotzen da eta alde horretatik lehen hizkuntza gaztelania da. Salbuespeneko kasua da eta sartu berria den neurrian komenigarria litzateke arlo horretako langileak trebakuntza saioak jasotzea.

## 1.0.5 arloa. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

### ARLOAREN INDARGUNE OROKORRAK:

- Villabonako Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen strategiaren komunikazioan jarrera proaktiboa hartzen du eta euskararen inguruan hartutako erabakien berri ematen zaie herritarrei. Aldi berean, Udala UEMAko kide den neurrian, beraiek proposatutako kanpainen berri ere ematen zaie herritarrei.
- Euskaraz Ados! Taldea martxan jarri da Udalaren ekimenez eta herriko eragileek parte hartzen dute.
- "Hemen euskaraz zara" eta "zuretzat lan, zuretzat euskaraz" egutegia eta kartelak jarri dituzte.
- Udalak euskararen inguruan hartutako erabakiak komunikabideetan, udal aldizkariak, web gunean eta sare sozialetan zabaltzen ditu.
- Udal teknikariek eta ordezkari politikoek, beste administrazio batzuk, udalerrietako esperientzia eta praktika onen berri emateko foroetan eta UEMAk antolatzen dituen ekimenetan parte hartzen dute.
- Villabonako Udalak, euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldee(i) herriko aldizkarian plan estrategikoaren eta AROaren berri ematen da)

### ARLOAREN ZER HOBETU OROKORRAK:

- Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldee(i), eta bide horretan jarraitzeko beharra ikusten da.

## 1.0.6 arloa. HIZKUNTZA-KLAUSULAK

### ARLOAREN INDARGUNE OROKORRAK:

- Villabonako Udalak hizkuntza-klausulak ezartzen ditu lizitatzen diren kontratu guztietan, deialdi bidezko dirulaguntzetan eta hitzarmenetan. Horretarako, espedientearen arduradunak zehazten ditu klausulen irizpideak eta gero euskara teknikariak gainbegiratzen ditu.
- Diru laguntzen Plan Estrategikoa eginda dago eta hizkuntza klausulak ezartzen dira. Herriko elkarte eta eragileekin hitzarmenak sinatzen dira eta euskarak behar duen presentzia zehazten da. Ezarritako irizpideen segimendua espedientearen arduradunak egiten du. Horretarako, intzidentziak jasotzen ditu eta euskara teknikariak nolabaiteko jarraipena egiten die. Horrez gain, udaltzainek ere egiten dute klausulen jarraipena, batez ere, kalean obrak daudenean, jartzen diren elementuei dagokienez.

### ARLOAREN ZER HOBETU OROKORRAK:

- Villabonako Udalak ez dauka sistematizatuta hizkuntza klausulen jarraipena. Komenigarria litzateke udalak egiten dituen kontratu eta dirulaguntzen zerrenda egitea, batez ere kontratu txikietan eta hortik abiatuta klausulak sistematikoki ezartzea. Jarraipena egiteko egitura eta modua ere zehaztu beharko litzateke.

## 2. Ardatza: ERABILERA

GARAPEN-MAILA						
Atributuak	HEDADURA			SENDOTASUNA		
Arloak	0-39	40-69	70-100	0-39	40-69	70-100
Zerbitzu-hizkuntza						
<b>Irudia</b>			<b>X</b>			<b>X</b>
<b>Herritarrekiko harremanak</b>			<b>X</b>			<b>X</b>
Lan-hizkuntza						
<b>Barne-harremanak</b>			<b>X</b>			<b>X</b>
<b>Kanpo-harremanak</b>			<b>X</b>			<b>X</b>
<b>Prestakuntza</b>		X			<b>X</b>	
<b>Baliabide informatikoak</b>		X			<b>X</b>	
<b>Sortze-hizkuntza</b>			<b>X</b>			<b>X</b>

## ZERBITZU HIZKUNTZA

### 2.1.1 arloa. IRUDIA

#### ARLOAREN INDARGUNE OROKORRAK:

- Villabonako Udalean euskara hutsez daude errotulu finkoak zein udalaren ardurapeko behin-behineko errotuluak. Era berean, sistematikoki jartzen dira errotulu berriak euskaraz.
- Argitalpenetan euskara da lehentasunezko hizkuntza Villabonako Udalean. Herri aldizkaria euskaraz sortzen da eta laburpen bat euskaraz egiten da, euskararekin lotutako gaiak euskara hutsean zabaltzen dira. Kartel asko euskara hutsean sortzen dira.
- Euskara da hizkuntza lehenetsia komunikazio publikoetan eta euskaraz egiten dira (agerraldi eta aurkezpenetan, baita hedabideekin ere). Ordezkarri politikoek euskara erabiltzen dute normaltasunez.
- Web gunea euskaraz dago, gaztelaniaz hautatzeko aukerarekin eta sare sozialetan zabaltzen diren mezuak euskara hutsean zabaltzen dira.

#### ARLOAREN ZER HOBETU OROKORRAK:

- Identifikatuta dauden errotulu elebidunak euskaraz bakarrik jartzea
- Aztertzen ari diren arren, komenigarria ikusten da webgunearen hizkuntzen erabilera zein izan behar den lantzen jarraitzea

## 2.1.2 arloa. HERRITARREKIKO HARREMANAK

### ARLOAREN INDARGUNE OROKORRAK:

- Villabonako Udalean harrera egiten duten langileek, lehen hitza euskaraz egiten diete herritarrei eta elkarrizketa gehienak euskaraz izaten dira. Herritarrek euskaraz aurkezten dituzten dokumentuei euskaraz erantzuten zaie eta hirigintzako txostenekin esaterako , euskaraz bakarrik sortzen dira eta eta eskaera gaztelaniaz egin arren ondorioak bakarrik itzultzen dira. Herritarren batek eskatzen badu txostena eskatzen badu egiten da gaztelaniara itzulpena.
- Langileek eta arduradun politikoeak, jarrera proaktiboa dute euskara dakitenekin harremanak euskaraz izan daitezten eta langileek modu naturalean egiten dute hori eta euskararen aldeko giroa sortzeko "hemen euskaraz bizi gara" bezalako leloak jartzen dituzte.
- Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei ahoz, beraiek hizkuntza aukeratu baino lehen. Langileek gaitasun nahikoa eta borondate argia dute euskaraz jarduteko. Langileak euren artean euskaraz aritzen dira eta eredugarri diren neurrian, horrek herritarrek ere animatzen ditu eurekin euskaraz egitera.
- Villabonako Udalak nahiz beste eragile batzuk, herritarrentzako antolatutako ekitaldietako eta ikastaroetako hizkuntza nagusia euskara da. Euskarazko eskaintzari lehentasuna ematen zaio eta horrela eskatzen zaie herriko eragile ezberdinei.

### ARLOAREN ZER HOBETU OROKORRAK:

- Villabonako Udalarekin harremanetan jartzen diren herritar euskaldunek euskaraz egin ohi dute udalarekin ahoz. Udal langileek herritarrekin euskaraz abiatzen dituzte elkarrizketak. Hala ere, herriko errealitatea kontuan hartuta, herritar multzo bat gaztelaniaz zuzentzen da Udalera eta kasu horretan, elkarrizketa gaztelaniaz izaten da. Herritarrek duen ulermen mailaren arabera, interesgarria izan liteke galdetzea ea zein hizkuntzatan nahi duen arreta jasotzea, elkarrizketa elebidunetarako bidea zabaldua.Eskualde mailako harrera zerbitzua martxan jarri dela eta hizkuntzaren aldagaia kontuan hartzea interesgarria izan daiteke.

## LAN HIZKUNTZA

### 2.2.1 arloa. BARNE-HARREMANAK

#### ARLOAREN INDARGUNE OROKORRAK:

- Udalaren ohiko lan eta zerbitzu hizkuntza euskara da bai ahoz bai idatziz ere. Horren erakusle da sailtako bilerak, plenoak eta batzordeak ahoz zein idatziz (bilera-deiak, aktak, mezuak, txostenak...) eta izapide guztiak euskaraz abiatzen direla. Batzorde guztiak euskaraz egiten dira udaleko langile eta arduradun politikoen euskara gaitasuna kontuan hartuta.
- Langileen arteko harreman profesional gehienak nahiz harreman informaletan euskara erabiltzen da, lan egiten duten eremuan euskara lehenesten da.
- Langile gehienek euskaraz sortzea lehenesten dute eta gaztelaniazko bertsioa behar denerako, itzultzaile neuronalaren erabilera oso barneratuta dago langileen artean.

- Udalaren jardun instituzionala euskaraz egituratzen da administrazio izapide arruntetan eta xedapen orokorrak euskaraz gutxienez lantzen dira izapidetze prozesu osoan zehar.
- Langile berriak lanean hasten direnean orokorrean, berehala konturatzen dira laneko kultura euskararen inguruan egituratzen dela eta euskararen aldeko estrategia transmititzen zaie.

#### **ARLOAREN ZER HOBETU OROKORRAK:**

- Laneko kultura euskara erabiltzearen aldekoa den arren, kasuren batean, sortu behar diren dokumentu eta txostenak errazago sortzen dira gaztelaniaz eta ondoren euskarara itzultzen dira, txosten juridikoak egin behar direnean adibidez. Arloak duen pisua kontuan hartuta komenigarria litzateke trebakuntzaren bidez laguntza ematea, udaleko ohiko dinamikan eta kulturaren errazago murgiltzeko.

### **2.2.2 arloa. KANPO-HARREMANAK**

#### **ARLOAREN INDARGUNE OROKORRAK:**

- Villabonako Udalak hizkuntza kudeaketa aurreratua du arlo askotan eta gaitasun eta prestutasun osoa du erakunde publiko zein pribatuekin euskara hutsez aritzeko. Hala ere, zenbait kasutan gaztelaniaz egin behar du hainbat administrazioekin (Eusko Jaurlaritzako hainbat sailekin, Ertzaintzarekin, Justizia administrazioarekin zein Gizarte Segurantzarekin). Udalak hainbat alditan adierazi die administrazio horiei, euskara hutsezko harremanak lehenesten dituztela eta kasuren batean gaztelaniaz jaso duen idatziak bueltatu izan dira eta euskaraz bidaltzeko eskatu.
- Villabonako Udalak gehienetan euskaraz bideratzen ditu harremanak enpresa pribatuekin.

#### **ARLOAREN ZER HOBETU OROKORRAK:**

- Erakunde pribatuekin egiten den euskararen erabilerari jarraipen estuagoa egitea, kasu batzuetan inertziaz jotzen da gaztelaniara eta gero konturatzen dira euskara ere erabil litekeela eta horretarako ondo legoke publikoki adieraztea beraiekin euskaraz egiteko duten gaitasuna eta gogoia. Kasu hauetan proaktiboki eta ausardiaz jokatzeko eskatzen zaio.

### **2.2.3 arloa. PRESTAKUNTZA**

#### **ARLOAREN INDARGUNE OROKORRAK:**

- Villabonako Udalean ez dago formazio eskaintza handirik, antolatzen direnak Foru Aldundiak eta IVAPek antolatutakoak dira eta euskarazko aukera dagoenean euskaraz egiten dira. Hala ere, aipatu behar da horietako batzuk, arlo juridikokoak eta hirigintzakoak adibidez, gaztelaniaz bakarrik eskaintzen direla.
- Udalak kasu puntualen batean formazio eskaintza egin izan du, baliabide informatikoekin lotutakoa esate baterako, eta horrelakoetan euskaraz ematen dira formazio saioak.
- Udaleko langileek hilero jasotzen dute UEMAK prestatzen duen trebakuntza fitxa. Fitxa horietan euskarazko trebakuntza eskaintzen zaie ordenagailua duten udaleko langile guztiei.
- Langile berri bat hasten denean, harrera euskaraz egiten zaio.

## **ARLOAREN ZER HOBETU OROKORRAK:**

- Gaur-gaurkoz Villabonako Udalak ez du formazio planik. Hori dela eta, komenigarria litzateke udalaren tamaina kontuan hartuta, formaziorako prozedura sistematizatzea. Eta, noski, formazio plan horren barruan ikastaroa euskaraz jasotzeko irizpideak eta protokoloak zehaztea.
- Kanpo erakundeek gaztelaniaz eskaintzen dituzten ikastaroak euskaraz ematea eskatu.
- Komenigarria litzateke UEMAK hilero bidaltzen dituen trebakuntza fitxen erabilerari jarraipena egitea, bidaltze hutsak ez baitu esan nahi gero teknikari bakoitzak irakurtzen dituenik.

## **2.2.4 arloa. BALIABIDE INFORMATIKOAK**

### **ARLOAREN INDARGUNE OROKORRAK:**

- Langileek euren eskura dauden euskarazko baliabide informatikoak euskaraz erabili ohi dituzte. Izferko aplikazioak hain zuzen Sareko, kontabilitatekoa, GIS geolokalizaziorako aplikazioa, erreserbak egiteko eta abar. Merkataritza bonuetarako aplikazioa ele bietan dago merkatarien eskariz.
- Villabonako Udalak ordenagailu berrietan, defektuz euskarazko bertsioa ezartzen dizkie euren ordenagailuetako sistema eragilean eta office-ko paketeetan.
- Villabonako Udalean Eskua ezarrita dago eta hainbat espediente euskaraz martxan jartzen dira.

### **ARLOAREN ZER HOBETU OROKORRAK:**

- Villabonako Udaleko kudeaketetan erabiltzen diren aplikazio informatiko batzuk (adibidez Vialine, udaltzainek erabiltzen duten programa), ez daude euskaraz lokalizatuta. Komenigarria litzateke tresna horiek euskaratzeko bideak lantzea edo jadanik lokalizatuta dauden beste tresna batzuekin ordeztzeko bideak aztertzea.
- Gaur egun, udaleko langile gehienek, ordenagailuetako sistema eragilean eta office-ko paketeetan gaztelaniazko bertsioa erabiltzen dute eta gaztelaniazko bertsioarekin ohituta daude eta alde horretatik, langileei euskarazko bertsioen erabileran trebatzeko laguntza eman beharko lieke Villabonako Udalak. Ordenagailuetan badirudi pixkanaka hedatzen joango dela.

## **2.2.5 arloa. SORTZE-HIZKUNTZA**

### **ARLOAREN INDARGUNE OROKORRAK:**

- Langileek eta udal ordezkariak euskaraz sortu ohi dituzte dokumentu gehientsuenak, baita teknikoak diren gehienak ere. Izan ere, langileek horretarako gaitasuna, prestutasuna eta ohitura dute.
- Egoera batzuetan, dokumentuak bi hizkuntzatan idatzi behar izaten dituzte langileek baina kasu horietan hirigintza zerbitzuan esate baterako ondorioak bakarrik jartzen dira ele bietan, gainerako guztia euskaraz sortzen da eta euskarazko bertsioa erabiltzen da.
- Langileen artean euskaraz sortzeko jarrera proaktiboa dago.

## ARLOAREN ZER HOBETU OROKORRAK:

- Arlo juridikoko txostenak gaztelaniaz sortzen dira eta ondoren itzultzen dira euskara. Komenigarria litzateke sail honetako teknikarien formazioan eragitea.
- Udaleko langile batzuek euren jardunean itzultzaile neuronalak erabiltzen dute. Aztertu beharko litzateke nola erabiltzen duten, eurekin landu eta itzultzaile horien aplikazioa zelan egin behar den adostu beharko litzateke, euskarak sortze hizkuntza izaten jarrai dezan.

## 4. Erakundeak lortutako garapen-maila

Zure erakundeak lortutako puntuazio absolutua arloaren arabera (urdinez), eta arlo horren gehieneko puntuazio absolutua (laranjaz), KEMEN markoaren arabera.

